



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

## **Batzar Nagusiek eskaria egin deutsie Aldundiari, konpostajeak Bizkaian daukan eskaerea eta kostua aztertu daian, hondakin organikoen berrerabilera ratioak zabaldu aurretik**

Bilbon, 2014ko azaroaren 13an

Nekazaritza eta Ingurumeneko batzordeak aho batez onartu dau gaur PP taldeak aurkeztutako arauz besteko proposamen bat, Foru Aldundiak “datozan 6 hilebeteetan, gure Lurraldean sortzen diran hondakin organikoen konpostajea zabaltzeko epe laburreko, ertaineko eta luzeko benetako aukerei buruzko azterlana egin daian”. Txosten horretan, konpostaren “gaur eguneko eta etorkizuneko” merkadua balorau beharko da, Bizkaian zein inguruan, eta “aurreikusten dan eskaria eta benetako eskaria kontuan eukiko dauen kalidadezko konpostaren ekoizpena handitzeko aukerak” aztertu beharko dira, ekoizpen hori oinarritzeko.

Arturo Aldecoa batzordekide popularraren eretziz “beharrezkoa” da konpostajearen eskari “gertukoa eta erreala” ezagutzera berreskuratutako materia organikoaren ratioak handitzeari buruzko erabagia hartu aurretik. “Lelokeria izango litzateke konposta egitea gero hondakindegira botateko”. “Badakigu ez tratatzea garestiagoa dala, baina hori ezin daiteke edozein preziotan egin”. “Datu horreek euki barik, beharbada geure burua engainetan egongo gara”, esan dau ordezkari popularrak.

Ganerako taldeak proposamenaren alde agertu dira, baina EH Bilduk eta EAJ-PNV-k gogoratu dabe idea hori joan dan urriaren 20an Gerediagan egindako osoko batzarrean eztabaidatu zala. “Oso gitxi” gehitzen deutso saio haretan koalizino abertzalearen proposamenaren ostean onartu zan mozinoari, baina, Ingurumeneko Sailak, ongarrirako berreskuratutako materia organikoaren bolumena handitzeak lurralderako izango dituan kostuak eta ondorioak ezagutzeko azterlan bat egitearen alde agertu dira.

### **BUTROEKO BIOTOPOA**

Horrez gain, Bizkaiko Legebatzarrak, PP-ren proposamenari jarraituz, aho batez onartu dau Eusko Jaurlaritzari “ahalik eta laguntza handiena eskatzea UribeKosta-Butroe inguruko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana –NBAP-PORN– egiteko eta onartzeko eta inguru horretarako babes irudi egokienak onesteko”.

Aldecoaren berbetan, plan hori “geldik” dago orain urte bi baino gehiagotik, talde batzuen aldetik “arazoak eta erresistentziak” dagozalako, baina “mundu guztiak” onartzen dau Butroe ibaiaren inguruak naturaren eta paisajearen ikuspegitik daukan interesa. Plana “arinago” joan daitela eskatu dau.

EH Bilduk eta EAJ-PNV-k eztabaidea Eusko Legebiltzarrean dagoala gogoratu deutsie batzordekide popularrari. Asier Vega koalizino abertzaleko batzordekideak, bere egunean aukeratu zan irudia “Biotopoarena” izan zala, adierazo dau eta Ainara Aretxabaletak (EAJ-



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PNV), Batzar Nagusiek gai horri buruzko Adierazpen instituzionala onartu ebela, eta une honetan plana “prozesu aktiboa” dala gogoratu deutso, Eusko Jaurlaritzako arduradunak, idatziz emondako erantzun batean, gogoratu eban lez.

PROPOSAMENA AURKEZTU DAUEN TALDEAK BAZTERTU EGIN DAU MEATZALDEKO GUNE BABESTUA ZABALTZEKO ARAUZ BESTEKO PROPOSAMENA

PP-k baztertu egin dau Eusko Jaurlaritzari, Meatzaldeko Biotopo Babestuaren eremua aldatzeko, eta babeseko gune periferikoan Trapagako gune altua (Zugaztieta, Larreineta eta Burzako) sartzeko egin beharreko azterlanak egin daizala eskatzea planteetan eban arauz besteko proposamena. Nerea Ahedo jeltzaleak, Biotopoaren babes gunea zabaltzeko prozesuaren “azkeneko izapide” administratiboak emoten ari dirala esan ostean baztertu dau proposamena PP taldeak. Hori zabaldu ezker, prozesua gelditu egin daiteke. “Ez da unea”. “Preminazkoa, biotopoaren aldarrikapena egitea da, eta gero beste gauza batzuk eztabaidatuko dira”.

PREBENTZINOZKO PROTOKOLOAK TMB-N, Q SUKARRA DALA ETA

Beste alde batetik, Iosu Madariaga Ingurumeneko foru diputatua PP-k eskatuta agertu da batzordearen aurrean, Legebatzarrean TMB lantegiaren desinfekzioaren emaitzak azaltzeko eta Q sukarraren agerraldi barririk gertatu ez daiten martxan jarri diran “prebentzinozko protokoloak” buruzko informazioa emoteko.

Beste ezer baino lehen, coxiella burnetii bakterioa guztiz desagertuarazo dala baieztu ostean, Osalane lantegiaren jarduerari barriro ekiteko baimena emon ebela uztailaren 14an azaldu dau Madariagak. Desinfekzio lanak egin ziran bitartean, UTE-ak arriskuen ebaluazio bat egin eban eta, beste gauza batzuen artean, TMB kudeatzen dauen enpresak martxan jarritako prebentzinozko neurriak jasoten dituan dokumentua prestau eban.

Neurri horreen barruan, animalien hondakinak jasoteko prozedura berezi bat eta osasun arloko hondakinak jasoteko beste bat egitea dagoz. Ganera, arrisku biologikoen eta kimikoen ebaluazioa be egin zan. Jarduketa bien emaitzak beharginei jakinarazo jakezan.

Prebentzino helburuagaz, baita be, TMB kudeatzen dauen enpresak beste neurri batzuk be hartu ditu, gaixotasunaren agerraldi gehiagorik egon ez daiten, Madariagak informau dauenez. Lehenengo, aireztapen sistemak aztertu dira iraztea eta garbitzea daukien aidea “aterateko sistemak hobetuz”. Ganera, instalazioak garbitzeko irunsketa erabilten daberen sistemak instalatea aurreikusi da. Prebentzinozko zuzendutako hobekuntzen barruan, beharginentzako aldagela bi instalatea aurreikusi da, “garbia eta zikina”, eta beharginei norbanakoaren babeserako neurriak bideratzea (eskunarruak, botak, maskarak eta betaurrekoak) behin erabilteko buzoaz aparte. Eta, amaitzeko, arriskuakaz bat datorren osasunaren zainketea ezarri da, osasun azterketa barriak eta txertatze kanpaina berezia, analitikaren emaitzak ikusi ostean.

Madariagak barriro gogoratu dauenez, TMB-n sortu zan Q sukarraren agerraldia lehenengo kasua izan zan ezaugarri horreek dituan Europako lantegi batean. Horregaitik ez egoan protokolo berezirik. “Krisi guztietatik ikasten da, eta hemendik indartuta urten gara”, esan dau,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

baina adierazo dau martxan jarritako neurriak “babesleegiak dirala”, eta horrek “apur bat” kaltetu daikeala zerbitzuaren ohiko funtzionamendua.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales piden que la Diputación estudie la demanda y coste del compostaje en Bizkaia antes de ampliar los ratios de reutilización de los residuos orgánicos**

Bilbao, a 13 de noviembre de 2014

La comisión de Agricultura y Medio Ambiente ha aprobado hoy, por unanimidad, una proposición no de norma presentada por el PP para que la Diputación Foral elabore “en los próximos 6 meses un estudio en relación a las posibilidades reales a corto, medio y largo plazo, del incremento del compostaje de los residuos orgánicos que se generan en nuestro Territorio”. El informe deberá valorar el mercado “actual y futuro” del compost tanto en Bizkaia como en su entorno, y analizar “la demanda previsible y las posibilidades de incrementar la producción de compost de calidad con demanda real”, a fin de fundamentar su producción.

El apoderado popular Arturo Aldecoa piensa que es “clave” conocer previamente la demanda “cercana y real” del compostaje y el coste económico de producción antes de tomar una decisión sobre la ampliación de los ratios en materia orgánica. Sería una “locura empezar a producir compost que vaya después al vertedero. Ya sabemos que es más caro no tratar, pero tampoco puede ser a cualquier precio. Sin estos datos nos podemos estar engañando”, ha advertido el representante popular.

El resto de grupos se ha mostrado favorable a la propuesta aunque EH Bildu y PNV han recordado que esta idea ya fue debatida en el pleno celebrado en Gerediaga el pasado 20 de octubre. Añade “poco” a la moción acordada en aquella sesión a propuesta de la coalición abertzale, pero se muestran partidarios de que el departamento de Medio Ambiente encargue un estudio para conocer los costes y las consecuencias que tendrá para el Territorio el hecho de aumentar el volumen de materia orgánica recuperada de las basuras para servir de abono.

### **BIOTOPO DE BUTRÓN**

Asimismo, la Cámara vizcaína ha acordado por unanimidad, a propuesta del PP, solicitar al Gobierno vasco “su máximo apoyo en el impulso de la elaboración y aprobación del Plan de Ordenación de Recursos Naturales –PORN- del área de UribeKosta-Butroe, y de la aprobación de las figuras de protección del área más adecuadas”.

Según Aldecoa, este plan está “paralizado” desde hace dos años porque existen “problemas y resistencias” de algunos colectivos, aunque “todo el mundo” reconozca el interés natural y paisajístico de los alrededores del río Butrón. Ha pedido que el plan avance “de manera más rápida”.

EH Bildu y PNV han recordado al apoderado popular que el debate está en el Parlamento Vasco. Asier Vega, apoderado de la coalición abertzale, ha advertido que la figura elegida en su momento fue la de “Biotopo” y Ainara Aretxabaleta (PNV) le ha recordado que las Juntas Generales aprobaron ya una Declaración Institucional en este sentido y que, en estos momentos,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

el plan “es un proceso activo”, como recordó una responsable del Gobierno vasco en una respuesta por escrito.

#### RETIRADA LA PROPOSICIÓN NO DE NORMA DE AMPLIACIÓN DE LA ZONA PROTEGIDA DE MEATZALDEA

El PP ha retirado finalmente una proposición no de norma en la que planteaba instar al Gobierno vasco a realizar los estudios necesarios para proceder a modificar el ámbito del Biotopo Protegido de Meatzaldea - Zona Minera de Bizkaia para incluir la zona alta de Trapagaran (La Arboleda, Larreineta y Burzako) en la zona periférica de protección. Su iniciativa ha sido retirada tras conocer por medio de la jeltzale Nerea Ahedo que la ampliación de la zona de protección del Biotopo, está “en sus últimos trámites” administrativos. La ampliación del mismo, podría paralizar este proceso. “No es el momento”. “Es urgente que primero se declare el biotopo y luego ya se debatirán otras cuestiones”.

#### PROTOCOLOS PREVENTIVOS EN LA TMB POR LA FIEBRE Q

Por otro lado, el diputado foral de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, ha comparecido a petición del PP, para explicar en sede parlamentaria los resultados de la desinfección de la planta TMB y para informar de los “protocolos preventivos” puestos en marcha para que no se vuelvan a producir brotes de fiebre Q.

En primer lugar, Madariaga ha explicado que tras confirmarse la completa erradicación de la bacteria *coxiella burnetii*, Osalan permitió que se reanudase la actividad de la planta el 14 de julio. Durante los trabajos de desinfección, la UTE realizó una evaluación de riesgos y elaboró un documento que contiene entre otras cosas, las medidas preventivas puestas en marcha por la empresa gestora de la TMB.

Estas medidas incluyen la elaboración de un procedimiento específico para la retirada de restos de animales y otro para la retirada de restos sanitarios. Asimismo se realizó una evaluación de los riesgos biológicos y químicos. Los resultados de ambas actuaciones fueron comunicadas a los trabajadores.

Con idéntico carácter preventivo, la gestora de la TMB ha adoptado varias medidas para que no se reproduzcan nuevos brotes de la enfermedad, según ha informado Madariaga. En primer lugar, se ha procedido a la verificación de los sistemas de ventilación, “mejorando los sistemas de extracción” de aire con filtrado y depuración. También se ha previsto la utilización de sistemas de aspiración para la limpieza de instalaciones. Las mejoras preventivas incluyen la instalación de dos vestuarios diferentes para el personal “limpia y sucia” y la dotación a los trabajadores de medidas de protección individual (guantes, botas, mascarilla y gafas), además de un buzo desechable. Y, finalmente, se ha establecido una vigilancia de la salud acorde con los riesgos, con nuevos reconocimientos médicos y una campaña de vacunación específica en función de los resultados de la analítica.

Madariaga ha vuelto a recordar que el brote de fiebre Q localizado en la TMB supuso el primer caso en una planta de estas características en Europa, lo que explica que no hubiera protocolos específicos. “Se aprende de todas las crisis y de ésta hemos salido reforzados”, ha dicho, aunque



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

ha advertido que las medidas puestas en marcha, que son “excesivamente proteccionistas” , pueden perjudicar “un poco” el funcionamiento corriente del servicio.